



HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA DONOSTIAN
ONDARRETAko ERTZAINZAREN KOMISALDEGIAREN LURSAILA

MEMORIA ETA PLANOAK

EUSKO JAURLARITZA

IDOM
www.idom.com

EZ: 20741
ED: XGA
2021ko AZAROA

AURKIBIDEA

Edukia

A.	MEMORIA INFORMATIBO ETA JUSTIFIKATIBOA	5
1	AURREKARIAK	6
2	PLAN BEREZIAREN SUSTATZAILEA	7
3	PLAN BEREZIAREN IDAZLEA	7
4	PLAN BEREZIAREN HELBURUA	7
5	INDARREAN DAGOEN ANTOLAMENDUA	7
6	PLAN BEREZIA IDAZTEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA	8
7	GENERO IKUSPUNTUTIK DUEN ERAGINA	8
8	ERAGIN SOZIOLINGUISTIKOA	8
9	PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN DESKRIBAPENA	8
10	BESTE ARAUDI BAT	10
	BALDINTZA AKUSTIKOAK	10
	IRISGARRITASUNA	10
	SUTEEN AURKAKO SEGURTASUNA	11
	aparKaLEKUEN ZUZKIDURA	11
B.	INFORMAZIO PLANOAK	13
	PI-01. INFORMAZIO PLANOA. Gaur egungo egoera	14
	PI-02. INFORMAZIO PLANOA. Zonifikazio orokorra	15
	PI-03. INFORMAZIO PLANOA. Zonifikazio xehatua	16
C.	ORDENAZIO PLANOAK	17
	PO-01. LERROKADURAK ETA SESTRAK. Behe Solairua	18
	PO-02. LERROKADURAK ETA SESTRAK. Solairua Tipoa	19
	PO-03. LERROKADURAK ETA SESTRAK. +4 Solairua	20
	PO-04. EBAKETA TIPOAK	21
D.	ARAUDI URBANISTIKOA	22
1	ALDATURIKO ARAUDIA	23
E.	MEMORIA ETA EKONOMIA NAHIZ FINANTZA BIDERAGARRITASUN AZTERKETA	24
1	IRAUNKORTASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA ETA EKONOMIA NAHIZ FINANTZA BIDERAGARRITASUN AZTERKETA	25
F.	ANTOLAKUNTZAREN GIDABIDE ETA LANEN KUDEAKETAREN AZTERKETA	26
1	LANEN ZERIZANA	27
2	ORDENAKUNTZA LANEN FASE ETA EPEAK	27
G.	LABURPEN EXEKUTIBOA	28
1	MUGATZEA ETA IRISMENA	29
2	ANTOLAKETA BERTAN BEHERA GERATZEKO ESPARRU ETA EPEA; ESKUARTZE URBANISTIKOKO EXEKUZIO PROZEDURAK	29
I	ERANSKINA. INGURUMEN-EBALUZIO ESTRATEGIKO SINPLIFIKATUA	30

II ERANSKINA. HIRI-PARTAIDETZA PROGRAMA	31
III ERANSKINA. GENEROAREN ARABERAKO ERAGIN AURRE TXOSTENA.....	32

A. MEMORIA INFORMATIBO ETA JUSTIFIKATIBOA

1 AURREKARIAK

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Donostiako Ondarretako Ertzaintzaren Komisaldegia erabileraren administratiboari zuzendutako azalera handitzea eskatzen du.

Ondarretako Komisaldegia 1994. urtean eraiki zen, eta 2006. urtean eraberritua izan zen. 2012. urtean ACXT eta Idom-ek Plan Berezi bat idatzi zuten, lursailaren antolamendu-zehaztasunak aldatzeko helburuarekin, eraikinaren handitzea posible egiteko.

Gaur egun, Segurtasun Saila hiri erdigunetan dituen gune/eraikinak "atsegintzen" saiatzen ari da, eta hori dela eta, dituen instalakuntzekin eta hauen inguruarekin duen erlazioa hobetzea nahi du, hiritarrei ematen zaien arreta hobetuz,, Etxeko Indarkeria eta Genero Indarkeria kasuentzako arretari bereziki erreparatuz (EI-GI), eta eraikin hauetan lan egiten duten agenteen zuzkidurak hobetuz.

Aipaturiko beharri zehatzari eman nahi zaien erantzuna bideragarri egiteko, gune/eraikin bakoitzaren azterketa egin du soluzioak optimizatu eta hobekuntzak ezartzeko. Zentzu honetan, Donostiako komisaldegia lehentasunezko gune bat da Sailarentzat eta, horregatik, azterketa desberdinak eta hobekuntza proposamenak egin dira ondorengo parametroei erreparatuz: kostua, egitura, funtzionalitatea..., aurreko parametroetatik abiatuz soluzio bideragarri batera heltzen saiatuko dira hiritarrei eta bertako langileei zerbitzu hobe bat emateko.

Lehenago aipatu bezala, helburu nagusia hiritarrei zerbitzu hobe bat ematea denez, Behe Solairuaren berregituratik abiatuko gara, hiritarreganako arreta gunea hobetuz, eta hortik etorriko dira eraikinaren gainontzeko barne-aldaketa guztiak.

Hiritarreganako arreta beste solairuetan aldaketak eginez hobetzea ezinezkoa izango litzatekenez, erreformaren behar morfologikoak deskribatzen dira hurrengo lerroetan, lehentxeago aipaturiko parametroak optimizatuz.

Proposamen honek eraikinaren lerrokadura eta sestreiei eragiten dien aldaketa morfologiko batzuk dakartza berarekin, eta honek Hiri-Antolamendu Plan Berezi bat osatzea eskatzen du. Plan Berezi hori dokumentu hau bera izango da.

Plan Berezi berri honetan eraikinaren eraikigarritasuna handitzea proposatzen da, hurrengo akzioen bidez azalera erabilgarri handiagoa izan ahal izateko:

- Behe Solairuaren handitzea
- +4 Solairu berri bat eraikitzea (gaur egun solairuak B+3 dauka), beheko 3 solairuen lerrokadura berdinak jarraituz
- +5 Solairu berri bat eraikitzea hego-mendebaldeko blokean (15,5 m x 18 m-tako laukizuzena)

Gainera, eraginkortasun energetikoa hobetzeko ekintzak eramango dira aurrera (itzaldurak hobetzeko

hegalen luzapenak edo itxituren loditzeak isolamendu termikoa hobetzeko esaterako).

2 PLAN BEREZIAREN SUSTATZAILEA

Plan Berezi honen sustatzailea Eusko Jauriaritzako Segurtasun Saila da, Erandioko (Bizkaia) Larrauri Mendotxe Bidea kaleko, 18. Zenbakian kokatuta dagoena (PK: 48.990).

3 PLAN BEREZIAREN IDAZLEA

Plan Berezi honen idazlea César Aitor Azcárate Gómez Arkitektoa da, EHAE0-ean 1.527 zenbakiarekin kolegiatua, eta **Idom Consulting, Engineering, Architecture**-en arkitekto bezala, Bilboko Zarandoa Etorbideko 23 zenbakian helbideratua dagoena.

4 PLAN BEREZIAREN HELBURUA

Dokumentu honen helburua Donostiako hirirako Hiri-Antolamenduko Plan Berezi bat garatzea izango da, Ondarretako Ertzaintzaren Komisaldegia aurkitzen den lursailaren eraikigarritasuna handitzeko intentzioarekin batera (HAPO-ko AO.08 esparrua). Honek solairuetako bat handitzea eta bi solairu berri eraikitzea ahalbidetuko du, eraikinaren bulego berrien, aldagelen eta arreta gelen beharrari erantzuna emateko, bereziki genero bortizkeriarekin zerikusia duten kasuak aztertzeke; eraikinaren zaharkitzearekin zerikusia duten erreformak ere proposatzen dira.

Plan Berezi honen esparruaren mugak bat datoz Ondarretako Ertzaintzaren Komisaldegia okupatzen duen lursailarekin (erreferentzia kastratala 8096129 zk). PI.01 "Kokapena" izeneko planoan ikus daitekeen moduan, 857 m² dituen lursail honen perimetroak esparruarekin kointziditzen du.

5 INDARREAN DAGOEN ANTOLAMENDUA

Azterketan dagoen lursailarengan indarrean dagoen antolamendua Donostiako Hiri-Antolamendu Plan Orokorra da, 2010-eko ekainaren 25-ean onartua izan zena da alde batetik, eta Ondarreta Ertzaintzaren Komisaldegia aurkitzen den lursailaren Plan Berezia A.U. "AO.08 Ondarreta Zabalgunea" bestetik (2012-ko abenduaren 20-an onartua). Aldi berean, HAPO-ak dionez, 1989-ko "ONDARRETA ZABALKUNDEA" Plan Partzialaren zehaztasunak indarrean aurkitzen dira.

HAPO-ko Arau Partikularretako 3. XEHATUTAKO ZONIFIKAZIOA planoan, aztertzen den lursaila AO.08 Ondarretako Zabalguneko Hirigunean kokatzen den Komunitatearentzako Hornidura dela zehazten da. Atxekitako dokumentazio grafikoan Hiri-Antolamenduko Plan Orokorrean ezartzen diren antolamendu zehaztasunak jasotzen dira.

Eraikigarritasun fisikoari dagokionez, 2012ko HAPB-aren onespének 1.872,42 m² sabaiko eraikigarritasun fisikoa zehaztu zuen.

6 PLAN BEREZIA IDAZTEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Ondarretako Ertzaintzaren Komisaldegia aurkitzen den lursailaren Hiri-Antolamenduko Plan Berezia bertan dagoen eraikinak dauzkan beharrianei erantzuna emateko beharrak justifikatua dago. Eusko Jauriaritzaren Segurtasun Sailarena izanik, bertako ekipamenduak hobetzeko beharrezkoa izango da eraikinaren eraikigarritasuna handitzea.

2/2006 lur eta hirigintza legeak, bere 69. artikuluan dionez *“plan berezien antolamendu propioa bere helburu espezifikokoak lortzeko beharrezko zehaztasunen bidez definituko da”*, eta *“plan bereziarentzako zehaztasunak plan partzialentzako aurreikusita dauden antzeko dokumentuen bidez formalizatuko dira beti ere edukia bere helburuetara moldatuz”*. Zentzu honetan, aipaturiko 2/2006 Legearen 70. artikulua dionez, hiri-antolamenduko plan bereziek *“plan orokorretan definitzen den antolamendu xehatua alda dezakete”*.

Momentu honetan eraikigarritasuna ahitua dago, eta beraz, sabai-azaleraren handiagotze honek Plan Berezi bat beharrezkoa egiten du, bi gai nagusi jasoko dituelarik: eraikigarritasun fisikoaren handitzea bera eta aldaketa hau posible egingo duen eraikinaren forma aldaketa. Bi gai hauek antolamendu xehatuaren gai propioak dira (bolumetria eta eraikigarritasun fisikoa), eta hortaz, Hiri-Antolamenduko Plan Berezia egokia dela kontsideratzen da.

7 GENERO IKUSPUNTUTIK DUEN ERAGINA

Ikusi III Eranskina. Generoaren arabeko eragin aurre txostena.

8 ERAGIN SOZIOLINGUISTIKOA

Plan Berezi honek hiriaren egoera soziolinguistikoa eraginik ez duela kontsideratzen da, bereziki 2/2016 Euskadiko Herri-Instituzioen Legearen 7.7 artikulua dioenaren arabera.

Edozein kasutan, dokumentu honen onespeneren ondorioz Aurrera eramango diren garapenek euskararen erabileraren normalizazioa bilatuko dute garatuko diren ekintza guztietan.

9 PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN DESKRIBAPENA

Proposatutako antolamenduak ondorengo aldaketak proposatzen ditu:

- Perimetro orokorra 16 cm-tan handitzea fatxada guztien eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Perimetroaren areagotze hau eraikinaren fatxada guztietan eta solairu guztietan proposatzen da, Vitoria-Gasteiz kaleko Behe-Solairuan izan ezik.
- Behe-Solairua eraikitako 110 m²-tan handitzea.
- 478 m²-ko solairu berri oso bat eraikitzea.
- 173 m²-ko solairu berri bat eraikitzea (kanpoaldeko fatxadetatik 2,00 m atzeratuta geratuko litzatekeena)

Honez gain, eraikinaren formaren aldaketa bat proposatzen da (lerrokadurak eta sestrak planoan deskribatzen den moduan) gaur egungo eraikinak lursailaren eraikigarritasun guztia ahitzen baitu. Alde batetik, Behe-Solairuak bere perimetroa zabaltzea eskatzen du, eta horretarako fatxadako lerrokadura (beti ere jabetzaren limitearen barruan) kanporantz eramatea proposatzen da Infanta Cristina Kalearen elementuetan, kale horretan 6,00m-tako zabalera bermatuz. +1, +2 y +3 Solairuetan (solairu tipoak) hegaldun elementuak luzatzea proposatzen da, eta horretarako, Infanta Cristina Kanean eta Eusko Jauriaritzaren beste eraikinerantz ematen duen fatxadan beharrezkoa izango da 1,15m-rainoko hegala baimentzea, eta 10 cm gehiagoko inguruak, kanporantz; Vitoria-Gasteiz Kanean 1m-koa izango da. +4 Solairuko hegaldun elementuen lerrokadura aurrekoen era berdinean kokatzea proposatzen da. +5 Solairua gainontzeko solairuetako kanpoko fatxadarekiko 2m atzeratuta geratuko da Infanta Cristina Kanean, Vitoria-Gasteiz Kanean eta aurreko biak elkartzen dituen zeharkako kalean.

Proposatutakoaren arabera, eraikinaren azaleren taula horrela geratuko litzateke:

+0 KOTA GAINEN AZALERA	ERAIKITAKO AZALERA (m ²)		
	PLAN BEREZIA 2012KO MAIATZA	PLAN BEREZIA 2021KO AZAROA	GEHIKUNTZA
Behe Solairua	459,14	569,14	110,00
+1 Solairua	470,24	480,24	10,00
+2 Solairua	470,24	480,24	10,00
+3 Solairua	472,80	482,80	10,00
+4 Solairua	-	478,00	478,00
+5 Solairua (Instalakuntzak)	-	173,00	173,00
DENERA	1.872,42	2.663,42	791,00

+4 Solairuak ezingo du Osakidetzaren eraikinak dauzkan 20,1m-ko erlaitz-altuera gainditu. Aurreko parrafoan azaldutu bezala, +5 Solairuaren altueraren kasuan, 23,5m-ko altuera izan ahalko du fatxadak

gainontzekoak baino 2,00m atzerago geratzen badira. Instalakuntzek (telekomunikabideen antenak izan ezik) ez dute 25,0m-ko altuera gaindituko.

Bukatzeko, +5 Solairua eraikitzeko, beharrezkoa izango da gehienezko altuera aldatzea 23,5m-ko eraikinaren gehienezko altuera eta 25m-ko altuera totala izan arte, instalakuntzetako elementuak +5 solairuan kokatu ahal izateko (telekomunikabideen antenak izan ezik, lekuz aldatuko baita eta 25m-ak gainditu ahal izango baititu).

Lizentzia lortzeko garatuko den Exekuzio Proiektuak antolamendu berrirako proposatutako aldaketek eraikinak bere inguruarekin duen harremana hobetuko duela jasotzen duen Urbanizazio Proiektu bat barneratuko du, bereziki hesi perimetrala kenduko delako, eta bere inguruetatik errazago eta garbiago ikusiko delako, segurtasun ekipamendu bat izanik beharrezkoa gertatzen dena. Aldi berean, hobekuntzek eraikinaren ingurunean modu positibo batean eragingo dute, hesiak ekidinez, oinezkoentzako guneak handituz eta kalitatezko gune publiko bat sortuz.

10 BESTE ARAUDI BAT

Honako Plan Berezi hau, ondoren deskribatzen diren Donostiako Hiri-Antolamendu Plan Orokorrean jasotako neurri batzuegatik zuzendua dago:

BALDINTZA AKUSTIKOAK

Hiri-Antolamenduko Plan Berezi honetatik deribatzen den exekuzio proiektuak, baldintza akustikoei dagokienez, bai eraikuntzaren kode teknikoko "Oinarrizko HR dokumentua; zarataren aurkako babesa" dokumentua eta baita Donostiako Zarataren Mapa Estrategikoa beteko ditu.

Aurreko mapen arabera, dokumentu honetan lantzen ari garen lursailaren inguruan ondorengo zarata mailak aurki daitezke:

- Denera egunez (Ld): 60 a 70 dB(A) Batez ere 60 eta 65 dB(A) tartean
- Denera arratsaldean (Le): 60 a 65 dB(A)
- Denera gauetan (Ln): 55 a 60 dB(A)
- Denera egun guztian (Lden): 60 a 70 dB(A) Batez ere 65 y 70 dB(A) tartean

IRISGARRITASUNA

Honako Hiri-Antolamenduko Plan Berezi honek, beste batzuren artean, Infanta Cristina kaleari eta Osakidetzako eraikina eta Ertzaintzaren Komisaldegia arteko oinezkoentzako kaleari espazio publiko gehiago emateko helburua dauka.

Hau dela eta, Plan Berezitik abiatuz proposatuko den erreformaren exekuzio proiektuak urbanizazio proiektuarekin bat egin beharko du.

Proiektu hori Donostiako Irisgarritasunerako Plan Zuzendariak arautuko du.

SUTEEN AURKAKO SEGURTASUNA

Honako Hiri-Antolamenduko Plan Berezi honek, beste batzuren artean, Infanta Cristina kaleari eta Osakidetzako eraikina eta Ertzaintzaren Komisaldegia arteko oinezkoentzako kaleari espazio publiko gehiago emateko helburua dauka.

Espazio publikoaren handitze hau del medio, eraikinaren 2 kale perimetralen zabalera handituko da; hirugarrenaren zabalera mantendu egingo delarik.

Hortaz, kale periferikoei dagokien geometria orokorrak Eraikuntzaren Kode Teknikoko (EKT) "SI 5. Suhiltzaileen Interbentzioa" atala beteko da.

Plan Berezi honetatik aterako den urbanizazio proiektuak aipaturiko Eraikuntzaren Kode Teknikoko atalak zehazten duena bete beharko du, altzariei, oztopoei eta gainontzeko elementuei dagokienez.

Aldi berean, Exekuzio Proiektuak Eraikuntzaren Kode Teknikoko (EKT) "SI. Suteei aurre egiteko segurtasuna" atala bere osotasunean bete beharko du, eta baita suteen aurkako gainontzeko araudi guztiak ere.

APARKALEKUEN ZUZKIDURA

Eraikinaren eraikitako azalera handitzearekin erlazionatutako aparkalekuen zuzkidura handitzearen inguruan, bi araudi aztertuko dira; alde batetik Donostiako Hiri-Antolamendu Plan Orokorra, eta bestetik Eusko Jauriaritzaren 123/2012 Dekretua.

Hiri-Antolamendu Plan Orokorra

Donostiako HAPOaren arabera "Komunitate-Ekipamendu" erabilerarako, azalera 2.000m² baino handiagoa bada (kasu honetan horrela gertatzen da) 2apark/100m² gomendatzen da, eta aparkaleku kantitatea gomendio horren azpitik dagp gaur egun. Hala ere, HAPOak zera dio: "Edozein kasutan, aurreko ataletan aparkalekuei buruzko parametroak erreferente maximo bezala kontsideratuko dira eta Udaletxeak, aurretik era egokian justifikatuta, parametro horiek beheraka moldatu ahal izango ditu proposatzen denak horrela eskatzen badu".

Eraikinaren aparkalekua poliziaren ibilgailuak gordetzeko erabiliko da, eta Komisaldegirako proposatzen den erreformaren barruan ez da aparkaleku kopuruaren handiagotze bat proposatzen, eta beraz, aurreko beharizan berberak mantenduko dira kasu honetan.


Aldi berean, gaur egungo aparkaleku guztiak +0 kota baino beherago aurkitzen direla aipatu beharra dago, egiturazko hormen artean eta egungo eraikinaren azpian, azaleraren handitze bat parametro logiko batzuren barruan egitea ezinezko bihurtzen duelarik.

123/2012 Dekretua

Lursailari erabilera tertziario dagokiola onartuz, lursaila zati azalera lortu beharko genukeen proportzioa 25 m²-ko 0,35 aparkaleku izango litzateke.

Hortaz, gaur egungo aparkaleku kopuruak, pribatua izanik ere, aurreko proportzioa betetzen du gaur egungo egoeran eta baita eraikina handituz gero ere. Hala eta guztiz ere, araudiaren betetze hau Plan honen garapenari dagokion exekuzio proiektuan jasota eta justifikatuta geratu beharko da.

B. INFORMAZIO PLANOAK



Aqto: César Azcarate Gómez
 D.E.: Xabier Gonzalo




Encargo: PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DE LA PARCELA DE LA COMISARÍA DE LA ERTZAINZA DE ONDARRETA

Nº E.: 20741
 Fecha: 11/2021
 Escala: 1:1.000





Nº Plano: PI-01
 Plano: SITUACIÓN







SISTEMATIZACION DE ZONAS DE USO GLOBAL




A. ZONAS DE USO RESIDENCIAL

-  A.10 RESIDENCIAL DE CASCO ANTIGUO
-  A.20 RESIDENCIAL DE ENSANCHE
-  A.30 RESIDENCIAL DE EDIFICACION ABIERTA
-  A.40 RESIDENCIAL DE BAJO DESARROLLO

B. ZONAS DE ACTIVIDADES ECONOMICAS

-  B.10 USO INDUSTRIAL
-  B.20 USO TERCIARIO

E. SISTEMA GENERAL DE COMUNICACIONES

-  E.10 RED DE COMUNICACION VIARIA (S.G.)
-  E.20 REDES FERROVIARIAS (S.G.)
-  E.30 ZONAS PORTUARIAS (S.G.)

F. SISTEMA GENERAL DE ESPACIOS LIBRES

-  F.10 ESPACIOS LIBRES URBANOS (S.G.)

G. SISTEMA GENERAL DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO

-  G.00 EQUIPAMIENTO COMUNITARIO (S.G.)

H. SISTEMA GENERAL DE INFRAESTRUCTURAS DE SERVICIOS

-  H.00 INFRAESTRUCTURAS DE SERVICIOS (S.G.)

 AMBITOS URBANISTICOS (A.U.)

Aqto: César Azcarate Gómez

 D.E.: Xabier Gonzalo

Ciente: *Euskadi, auzolana, bien común*


 ELISKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
SEGURTASUNA, SAILA DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Encargo: PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DE LA PARCELA DE LA COMISARÍA DE LA ERTZAINZA DE ONDARRETA

Nº E.: 20741
 Fecha: 11/2021
 Escala: 1:1.000

Nº Plano: **PI-02**
 Plano: ZONIFICACIÓN GLOBAL





- a. PARCELA RESIDENCIAL**
- a.10 RESIDENCIAL DE CASCO ANTIGUO
- a.20 RESIDENCIAL DE ENSANCHE COMUN
- a.21 RESIDENCIAL DE ENSANCHE ANTIGUO
- a.22 RESIDENCIAL DE NUEVOS ENSANCHES
- a.30 RESIDENCIAL DE EDIFICACION ABIERTA
- a.40 RESIDENCIAL DE BAJO DESARROLLO
- b. PARCELA DE ACTIVIDADES ECONOMICAS**
- b.10 INDUSTRIAL
- b.20 TERCARIO
- e. SISTEMA DE COMUNICACIONES**
- e.10 RED DE COMUNICACION VIARIA
- e.20 RED DE COMUNICACION FERROVIARIA
- e.30 ESPACIO PORTUARIO
- e.40 APARCAMIENTO
- f. ESPACIOS LIBRES**
- f.10 ESPACIOS LIBRES URBANOS
- f.20 ESPACIOS LIBRES URBANOS COMUNES
- f.30 CAUCES FLUVIALES
- g. EQUIPAMIENTO COMUNITARIO**
- g.00 EQUIPAMIENTO COMUNITARIO
- h. INFRAESTRUCTURA DE SERVICIOS**
- h.00 INFRAESTRUCTURA DE SERVICIOS
- AMBITOS CUYA ZONIFICACION PORMENORIZADA SE REMITE AL PLANEAMIENTO A PROMOVER

Aqto: César Azcarate Gómez
 D.E.: Xabier Gonzalo

Ciente: *Euskadi, auzolana, bien común*
 ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
 DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Encargo: PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DE LA PARCELA DE LA COMISARÍA DE LA ERTZAINZA DE ONDARRETA

Nº E.: 20741
 Fecha: 11/2021
 Escala: 1:1.000

Nº Plano: PI-03
 Plano: ZONIFICACIÓN PORMENORIZADA

